


HERNANIKO EURONET 50/50 PROIEKTUAREN 1. BULETIN ELEKTRONIKOA



2. HIRUHILEKOAN ENERGIAREN JARRAIPEN-LANAK BURUTU DITUGU

Aurreko hiruhilekoan Euronet 50/50 proiektua abiarazi, plangintza egin, Energia-taldea sortu eta prestakuntza zein sentsibilizazio-saio ezberdinak burutu ondoren, Gabonak igarotakoan hurrengo faseari ekin genion: **energia-ibilbidea egitea eta energiaren ikuskaritza osatzea**.

Fase horretan, energia-taldearen kide diren ikasleek eta baita horien laguntzaileek ere, **eskolako eraikinak gainbegiratzeko energiaren kudeaketa egoki baten ikuspuntutik**. Besteak beste, energiaren kontsumoaren alderdi ezberdinak ebaluatu dituzte hiruhileko honetan zehar:

- Eraikinaren egoera teknikoa.
- Berokuntza/klimatizazio-sistema.
- Aireztatzen-sistema.
- Argiztapena.
- Ekipamendu elektronikoaren erabilera.
- Ur beroaren erabilera.
- Etab.

Aurrekoaz gain, gela guztietako tenperaturak neurtu dituzte ikasleek eta gomendatzen diren erositasun termikoko tenperaturekin bat datozen edo ez egiaztatzeko aukera izan dute. Lan guztiak aurrera eramateko orduan ikasleek tresna ezberdinak erabili dituzte; hala nola: termometroak eta datuen bioketarako zein aurrezpenaren kalkulurako jarraipen-orriak.



IPAR POLOA SALBATZERA GOAZI!

Otsailko 2. hamabostaldian "Ipar Poloa salbatzera goazi!" izeneko joko kooperatiboaz gozatzeko aukera izan zuten ikasleek. Jokoa 4 pertsonaia nagusiak baliatuz (hartza polarra, krilla, itsas txakurra, pingüinoak) ikasleak taldetan banatu genituen eta taldean egindako elkarlanari esker, euren izotz-zatitik helmugara (iglu batek irudikatzen zuena) heltzea zen helburua. Horretarako, baina, galdera eta froga ezberdinak gainditzea ezinbestekoa zen! **Galderek eta frogak klima-aldaketari aurre egiteko jarduerekin zerikusia zuten** (tartean, energiaren aurrezpenarekin eta kudeaketa egokiarekin lotura zutenak ere bazeuden).



HURRENGO URRATSAK: EBALUAZIOA, EKINTZA-PLANA ETA KONPONBIDEAK

Urumea ikastolan otsailaren bigarren hamabostaldian eta martxoaren hasieran Gay Mur eta Gay Mur Txiki eraikinak gela guztietako ikuskaritza-lanak burutu ostean, pairatzen ari garen osasun-egoera igaro eta eskolan berriro ere martxa hartzean, ondorengo pausoak aurrera eramatea aurreikusten dugu:

- Euronet 50/50 proiektuaren 5. Urratsa: 2 astetan zehar eraikinaren tenperaturen datuak hartuko dira, eraikinaren epe luzearako tenperaturen profila egiteko. Ondoren, energiaren ebaluazioaren lanketa egingo da. Hau da, eraikinak erabiltzaileek (ikasleek, irakasleek, gainerako langileek) jokaerak eraikinaren energiaren kontsumoan nola eragiten duten aztertuko dute.
- 6. Urratsa: ikastetxearen ekintza-plana diseinatzea eta konponbideak proposatzea. Energia-taldeko kideek une horretara arteko emaitzak aztertuko dituzte eta hobetu beharreko arloak antzemango dituzte. Hobetu beharreko arlo horietarako helburuak eta ekintza zehatzak proposatzea izango da egin beharreko hurrengo lanketa (helburu eta ekintza horiek izango dira ekintza-planaren eduki nagusia).



ETXEAN ENERGIA AURREZTEKO BALIABIDEAK

Hona hemen euskarazko nahiz gaztelarazko hainbat web gune erabilgarri, argindarra eta berokuntza arduraz erabiltzen ikasteko gomendioekin:

Euskarazko baliabideak:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Gipuzkoa Argitu" programaren baitan sortutako ["Etxean energia aurrez dezakezu erosotasunik gaku Gabe"](#).
- Energiaren Euskal Erakundeak diseinatutako ["Energia etxean"](#) izeneko gida.
- HABEK prestatutako energiari buruzko [Dokutekako fitxa](#), energia-aholkuekin.

Gaztelarazko baliabideak:

- ["¡Puedes ahorrar energía sin perder confort"](#) gaztelarazko gida, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ["Guía para el ahorro de energía en el hogar"](#) diseinatu por el Ente Vasco de la Energía.
- Instituto para la Diversificación y el Ahorro de la Energía erakundeak diseinatutako [gida birtuala](#).